

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko otsailaren 14a. IX. urtea. 2.359. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Manipulados del Araxeseko bost kaleratzeak salatu dituzte

Lizartzako enpresako zuzendaritzak dio «egungo egoerak horretara bultzatu» dituela; sindikatuek elkarretaratzea egin dute **02**



LAB eta ELA sindikatuek deituta elkarretaratzea egin zuten atzo. **1.T.**



→ **Inauteri giroa, herriz herri.** Berastegin eta Lizartzan mozorroen festa ospatu dute asteburuan, eta kaldereroak eskuldeko hainbat herritan izan dira. Giro ona nagusitu da leku guztietan. Argazkian, *Osasungintzan pribatizaziorik ez taldekoak*, Berastegiko mozorro lehiaketaren irabazleak, sari gisa jasotako aza eskutan dutela. **04-5**

«Zale mordoa ditu Leitzan, guretzat mito bat da»

Manuel Lasarte bertsolaria 84 urterekin hil da; 12 urterekin joan zen Leitzatik, baina beti izan du goioan, eta bertsoak ere eskaini zizkion **03**



Errazkin eta Urruzolak 21 tanto egin dizkiote Mikel Goñiri

Ibarrako frontoian pilotazale asko bildu dira lehia ikusteko **06**



Prezio oso bereziak

Galtzerdiak 1€ eta 2€

Poloak 11€

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1962
LENTZERIA



Tolosako Trianguloa plazan elkarretaratzea egin zuten atzo arratsaldean, ELA eta LAB sindikatuek deituta. IT.

Manipulados del Araxes lantegiko langileen egoera salatu dute ELAk eta LABek

Bost langile kaleratzeko erabakia hartu du zuzendaritzak «egungo egoerak horretara bultzatu duelako»

Erredakzioa Lizartza

Lizartzako Manipulados del Araxes lantegiko zuzendaritzak bost langile kaleratzeko erabakia hartu du, eta «hori eta langileen egungo egoera orokorra salatze-ko» ELA eta LAB sindikatuek deituta elkarretaratzea egin zuten atzo, Tolosako Trianguloan.

Bi sindikatuek adierazitako arabera, Lizartzako lantegiak dituen 14 langiletik 5 kaleratzeko erabakia hartu du zuzendaritzak. «Azken hamabost hilabeteetan lan erregulazio txostena aurkeztuta, egoera honetan egon da lantegia, eta kaleratzeak burutu ostean, gainontzeko langileek lan erregulazio txostenaren pean jarraituko dute, zuzendaritzaren

asmoak betetzen badira», azaldu dute sindikatuek.

Manipulados del Araxes urte luzeetan grafikagintzara dedikatu den enpresa da. «Urte oparoak izan direnean irabazi horiek ez dira bertako langileen artean banatu, eta orain, garai okerragoetan, langileok gara kaltetuena», adierazi dute ELAk eta LABek. Azaldu dutenez, «lan kargaren jaitzierengatik» azken urteetan «arazoak» izan ditu. Halaber, Amarotz paper fabrikarekin estuki lotuta egon izan da azkenaldian, eta honen itxieraren ondorioz, «egoera are eta larriagoa» bihurtu da. Sindikatuen ustez, «lantegiak ez du beste alternatibarik landu eta horrek azken hilabeteetan langileak lan erregulazio txostenean egotea eragin du, eta orain, hainbeste urtetan bertan lanean aritu diren bost langile kale gorrian geratzeko arriskua dago zuzendaritzaren erabakiz».

Bi sindikatuek diotenez, langileek krisiaren aitzakipean hamai-ka eraso jasan dituzte azken urte-

otan, eta eskualdea ez da horretatik kanpo geratu. «Irabaziak gutxi batzuen eskuetan metatzea helburu duen kapitalismoak bere horretan jarraitzen du: beraiek sorturiko krisian murgildurik, krisitik ateratzeko sistematan sakontzea dakarten irtenbideak proposatu eta elikatuz. Horra hor, Zapatero jaunaren erreformak eta bere ondorioak eta orain Raixoiren erreforma eta asmoak, besteak beste». Euren ustez, krisitik ateratzea «langileen esku» dago. «Gure indarrak bilduz, aberastasu banaketan oinarrituriko erdua bultzatuz, kalera atera eta gure ahotsa entzuteko unea da».

«Langile guztiak dakite»

Manipulados del Araxes lantegiko zuzendaritzak bere aldetik, «beste hainbat lantegitan dauden egoera berean» aurkitzen direla adierazi du. «Langile guztiak euren postuetan jarraitzea gustatuko liizaugike, baina egoerak erabaki hau hartzea bultzatzen gaitu. Langile guztiak jakinaren gainean daude, eta egoera ulertu dute, eta ez dute kontrako iritzirik azaldu. Gainera, gurean ordezkaritza duen ELA ere konforme azaldu da eurekin izan dugun bileretan», azaldu dute.

Aingirak eta angulak



Bioinerttasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Nahiz eta arrain itxurarik ez izan, arrain bat da; nahiz eta bere kumeak erreketan harrapatzen ditugun, itsasoan jaiotzen da; eta nahiz eta bere kumeen kilo mila eurotik gora ordaintzen den, urtero ederki saltzen da... Benetan animalia xelebrea dugu gure aingira eta bere kumetxoak: angula.

Behin jan ditut angulak, gaztea nintzela, beraien prezioa gaur egungoa ez zenean. Buztinezko kazola batean atera zizkidan ene amak zizare itxurako animaliatxo haiek, espagetiak bailiran sardexkarekin ziztatu, bira batzuk eman eta ahoan sartu nituen arrain itxuririk gabeko arraintxo haiek.

Lehenengo ahokada sartu eta hortzen artean «krisk!» nola egiten zuten nabaritu nuenean erabaki nuen gehiago ez nituela jango zomorro nazkagarri haiek: «Hura nazka!». Orduetik aurrera, angulen ordezko plastikozko angulak askoz gusturago jaten ditut.

Angulak ahoan sartu eta «krisk!» hura zer ote zen ikertzen hasi zen oraindik biologoa ez zen nire zerebro gazte hura. Hor konturatu nintzen, angula, aingiraren kumea dela, eta aingira, amuarri- na bezalaxe arrain bat dela, nahiz eta suge baten itxura luzanga duen. Beraz ahoan «krisk!» soinu nazkagarri eta gogoangarri hura atera zutenak, angularen bizkarrezurra, burezurra eta bestelako hezurtxoak izango ziren.

Ahoan lakatzak dira angulak, izan ere, arrain orok bezala ezkatu dituzte eta gure mihian lixa baten modura igarotzen dira, gainera, jan aurretik ehunka angulatxo- en begiak ikusi ahal dira guri begira. Ba omen da Euskal Herriko bazterren batean, plastikozko angulak, benetako angulen ordez saltzen dituen jatetxe bat, aurrez plastikozko angulei boligrafoarekin begiak pintatuz.

Kontuak kontu, aingira da gaur egun, kontsumitzen den arrainik misterioitsuena. Biologoez ez daki-

te oraindik angulak zehazki zein itsasotan jaiotzen diren; dakitena da, angulatxo jaioberria bizi indar handiaz jaiotzen dela, zeren nahiz eta zentimetro gutxi izan, milioika metro kubiko dituen itsaso zabalean igerian hasten da Golfoko korrontean zehar erreka baten bila, inongo GPSrik gabe.

Hamar hilabeteko bidaia arriskutsuaren ostean, angulatxo errekan gora hasten da igerian, baina hau egiteko bere buruan itxura aldaketa handiak pairatzen ditu. Lehenik aingira hori bihurtzen da, milimetro bat inguru neuritzen duen angulatxo horizta. Harrapariak ekiditeko, gauean eta ibaia lokaztua dagoenean soilik egiten du igeri eta egunez ibaipeko zoru lokaztuan gordetzen da.

Metro erdiko tamaina hartzen duenean, eta ibaian gora igeri egitea zailago zaionean, beste eraldaketa bat pairatzen du aingira horiak, eta aingira zilarkara bihurtzen da. Izenak dioen bezala, zilar itxura hartzen du, eta batez ere, begiak handitzen zaizkio, ugaltzeko prest dago... eta hemen dator txis-tea.

Milaka kilometrora dagoen itsaso ezezagun baten azpian jaito, gure ibaietara etortzen ehunka arrisku igaro, ibaian gora joan, eta azkenik, sexualki heldua den gure aingira zilarkarak buelta erdia hartu eta berriro itsasora doa ugaltzera. Honi deitzen zaio Alper bidaia.

Noski, aingirak bidaia hau egiteko arrazoi bat badu, bizidunek alferrik ez baitituzte gauza gehiegi egiten. Nonbait aingiraren hazkuntza ezinezkoa da itsas ingurunean eta ibaietako ur geza eta bertako elikagaiak beharrezkoak ditu heldu bihurtu eta ugaltzeko.

Beraz, aingira zilarkara badoa ibaian behera itsasorantz, berriro bueltako bidea egitera eta itsaso sakon eta ezezagun batean arrautzak ipintzera. Arrautz hauek berriro angulak aterako dira eta bidean gure txintxorroekin eta sareekin ez baditugu harrapatzen behintzat, hauek ere gure ibaietara iritsi eta berriro itsasora bueltatuko dira. Milioika urtetan egin den ziklo etenezina errepikatuz.

Jakin dezatela nire irakurleek, XX. mendearen hasieran aingirak eta angulak oso ugariak zirela gurean, baina gure urtegiek, industriak eta kontrol gabeko arrantzak, gaur egungo egoera kaxkarrera eraman ditu. Ea zorte eta borondate pixka batekin, egin dituzten birpopulazioek arrakasta duten.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Pertsona bat behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Kotxea behar da. 669 360908.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Villabonako Errota auzoan etxebizitza salgai. Interesatuak, deitu 619 770458 zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Erztuna.** Zilarrezko pieza borobila duen eraztun beltz bat galdu nuen Tolosan larunbatean (otsailaren 11n) Zerkausien inguruan. Aurkitu duenak dei dezala 625 709611 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Lasarte bertsolaritzaren zutabe bat da»

Leitzan jaiotako Manuel Lasarte bertsolariaria hil da 84 urterekin; azken agurra eman diote Orion

Imanol Garcia Leitza

Atzo eman zioten azken agurra Leitzan jaio zen Manuel Lasarte bertsolariari. Aretxabaletan hil zen, igandean, 84 urte zituela eta Orion lurperatu dute. Leitzako Aurrera elkartearen egindako Bardoak Txapelketaren saioaren ondoren jakin zuten hainbat bertsotzalek Manuel Lasarte hil zela. Horietako bat izan zen Migel Mari Elosegik *Luze* bertsolaria: «Lasarte bertsolaritzaren zutabe bat da. Bertsolari oso ona zen. Zuzentasunari eta errimari begiraturaz gero, fenomenoa zen». Pertsona «apala eta gozoa» zela esan du Elosegik. «Umore erregistroa bazuena, baina seriotik, arrazoiak botatzen gehiagoluzitzen zen. Artista zen; hitz gutxitan asko esaten zuen», dio Elosegik eta Lasartek bereziki errimarekin zuen abilezia nabarmendu du: «Perfekzioa ukitzen zuen».

Elosegik ez zuen Lasarterekin abestu bertsotan, baina gogoan du txikitari saioaren batean entzun ziola. «Leitzan zale mordoa



Manuel Lasarte, bere omenezko eskulturaren aurrean, 2008an Leitzan egin zioten omenaldian. MIKEL ILLARRREGI

ditu, batez ere 60 urtetik gorakoa. Guretzako mito bat da», dio Elosegik. 2008an omenaldia egin zioten herrian. «Eskultura bat du Leitzan, eta istripu baten ondorioz, berritu egin behar izan zen. Horren inaugurazioa egin zen, 2008an, eta Lasarte bera herrian izan zen». Orion bizi izan bazen ere, Leitza beti gogoan zuela esan du Elosegik: «Leitzarra zela esaten zuen beti. Bertoak egin ziz-

kion herriari, ederrak, guretzat emozio handikoak».

Txomin Garmendia bertsolari eta idazle berrobitarrak hainbat abestu zuen Lasartekin: «Nik ezagutu dudana bertsolaririk txukunena izan da». Errimarako zuen jariora ere nabarmendu du Garmendiak: «Abila zen eta neurrian ere oso ondo aritzen zen». Lasartek oso belarri ona zuela ere gaineratu du: «Ez zuen indar han-

dirik abesterakoan, baina kantari hasten zenean, isiltasuna sortzen zen inguruan eta bere hitzak entzuleen belarrietan sartzen ziren». Pertsona gisa «oso giro onekoa» zela dio Garmendiak, eta hizketan, bertsotan bezala, «txukuna» zela.

Lasarteren argitalpenak ere aipagarriak direla dio Garmendiak: «Xenpelarren bederatzi puntukoak oso famatuak dira, baina nire

ustez Lasarterenak hobeak dira. Bere liburuak irakurtzen dituenak aitortu beharra dauka oso onak direla». Uztapide bertsolariarekin izandako hizketaldi bat ekarri du gogora Garmendiak, Lasarteren maila nabarmentzeko: «Esan nion Lasarte eta Basarri entzun nituela bertsotan, eta Lasarte hobeto aritu zela. Eta Uztapidek 'Lasarte ondo dagoenean, ez basarri eta ezta kalerik ere' erantzun zidan».

Bertsolari ez ezik, idazle

Manuel Lasarte Leitzako Franki baserrian jaio zen, 1927an. Hamazazpi urterekin hasi zen bertsotan, Zaldibarren, eta 40 urte inguru eman zituen plazaz plaza. Hamabi urterekin Aiara joan zen bizitzera, eta handik, Oriora. Errementaria zen ogibidez, eta bertsu munduari dagokionez, ez zuen txapelketetan parte hartu.

Bertsolari ez ezik, idazle ere bazen, eta hainbat liburu idatzi zituen: *Bertso mordoxka* (1970), *Gordean neuzkanak* (1975), *Enbor zarraren ezpalak* (1995), *Kantuarren ordñez* (1997), *Plaza-gizonak* (2005). Azken hori Antonio Zaballak Auspoa sailean argitaratu zuen, eta Zaballaren iritziz, Lasarteren bertsoek eta prosak ageriko zuten «aita batenak» zirela, «Lasarte bi arlo hoietan maixu» baitzen.

Bederatzi hilabeteko kartzela zigorra, udaltzain bat jotzeagatik

Erredakzioa Zizurkil

Bederatzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote emakume bati, laguntzen saiatu zen Zizurkilgo udaltzain bati genitaletan jotzeagatik eta iraintzeagatik. Gertakaria 2010eko azaroaren 25ean izan zen. Udaltzaingoak laguntza eskaini zion aipatu emakumeari etxera joateko, izan ere, emakumea herriko plazan zegoen, udaltzaingoaren hitzetan «alkoholdun edariak hartu izanaren eraginpean» eta 10 hilabeteko haurra zuen berarekin. Era berean, ertzain bat ere kolpatu eta iraindu zuen emakumeak. Kolpeen ondorioz, ertzainak 41 egun behar izan zituen osatzeko. Epai-tuak, kartzela zigorrak gain, Gizakia Helbururen zentro batera jo behar du menpekotasuna sendatzeko, eta ertzainari 1.190 euroko kalte ordaina eman beharko dio, eta udaltzainari 150 eurokoa.

Leitzaundi taldeak aurrera egin du txapelketan

Bardoak 2012ko bi saioak irabazi dituzte Leitzaundikoek; Leitza ta leitzarrak taldea, ostiraleko saioaren zain

I. Garcia Leitza

Bardoak 2012 bertso txapelketa abian jarri da Leitzako bi taldeen-tzako. Horietako batek, Leitzaundik, hasiera ona izan du eta dagoeneko sailkatu da hurrengo fasera-ko, jokatuak bi saioak irabazi baititu. Leitza ta leitzarrak talde-ak ez zuen punturik lortu Barañainen, eta beste aukera bat izan-ago du etxean, ostiral honetan.

Migel Mari Elosegik *Luze*, Iñigo Ibarra eta Iñigo Sagastibeltza dira Leitzaundi taldekoak. Ostiralean Beran izan ziren, eta Beratarrak taldearekin aritu ziren bertsotan. «Giro polita izan zen», dio Elosegik. «Beratarrak taldeko Julien Zelaietak markatu zuen diferentzia, baina taldeak egiten duena hartzen da kontuan, eta guk lortu genuen puntua». Igandean, Leitzan aritu ziren, Aurrera

elkartean, Bar-ideak taldearekin. Hor ere puntua eskuratu zuten. «Oso pozik gaude», esan du Elosegik.

Beste aukera bat

Joxema Leitzak, Jose Luis Barberia *Zilik* eta Mikel Azpirozek osatzen dute Leitza ta leitzarrak taldea. Beteranoak taldearekin egin zuten bertsotan Barañainen eta punturik gabe itzuli ziren. «Saio polita izan zen, oso parekatua», esan du Barberiak. «Ea etxeko saioan lortzen dugun puntua».

Ostiralean, Aurrera elkartearen jokatuak dute bigarren saioa, Jitutak taldearekin. 21:30ean hasiko dira bertsotan, eta aurretik jateko zerbaiz izango da.

tolosaldea.hitza.info

tolosaldea.hitza.info helbidean ikus daitezkeen azken bideoak:

- **Tolosaldeko erraldoi eta buruhandien kalejira.**
- **Haur danborradaren entsegu orokorra.**
- **Anoetako Dantzasoka Eguna.**



Leitzaundi taldekoak, Aurrera elkarteko saioan. HITZA

Jose mari jatetxea

lhauteritan menu bereziak

Etorri!

<p>Lehen menua</p> <p>Angula freskoak Baserriko oiltsakoa edo txuleta Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa</p>	<p>Bigarren menua</p> <p>Tolosaldeko babarrunak Lenguoda "menière" edo baserriko oiltsakoa Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa</p>
---	--

60€ 27€

Erreserbak eguneko deitu
943682042 Ostuak 11:12. Leitzako ibarrietan.
Leitzarra Ostuak 16-18 21-ora. Tolosaldeko ibarrietan.



Mozorroren festa izan da Berastegin eta Lizartzan

Berastegin eta Lizartzan asteburuan inauteriak ospatu dituzte; «giro oso onean» mozorroak eta jata izan dira nagusi

Eneritz Maiz

Berastegiarrek eta Lizartzarrek ospatu dituzte herriko inauteriak. Tolosakoak aurre hartuta, mozorroak eta festa izan dira nagusi asteburuan zehar. Berastegin, ostiralean eta li-

runbatean izan dituzte inauteriak. Ostiralean txikienean txandaka izan zen. Mozorroak jantzi eta musika lagun hartuta herri txokoak girotu zituzten. Larunbatean, herri, txikienek eman zitoten jarrailpena mozorroak jantzi eta dantza emandidia eginez herriko plazan. Ondoren, txokolate berrea hartu zuten. 19:00etatik aurrera triku-petosa izan zuten, eta eguna bukatzeko afaria egin zuten. Amaitu Azkue zinegotziaren esanetan, «oso oso gustura goratu gara. Jendea oso ondo portatu da, eta positiboa izan da. Jendea-

kok parte hartu du, eta herritarrek erantzun ona eman dute». 120 lagun inguru elkartu ziren afalazko. Mozorrorik politenak saria izan ohi da Berastegin. Aurtengo saria, *Ossunoyntzen proba-tzoniñeri* er mozorro taldearen izena izan da. Ohi-turari jarraituz, sari bezala aza bat jaso zuten. «**Umore oso ona**» Lizartzan ere ostiralean txikienek izan ziren protagonista. Larunbatean, herri, goisan goituz hastu ziren baserri eta kaleak giroz. Gorputza mugituz, hotzari

aurre egin zioten. Besteak beste, bazkaria egin zuten frontoan. «Hemereizagarrren inauteriak» hotzak izan dira, baina umore oso ona izan da eta jendearen parte hartzea ere bikaina izan zen. antolatzaileen hitzetan. Oso gustura geratu dira Lizartzarrek. «Puska biltzen 40 txantxo eta dantzi-artu ziren. 15 konpartisa atertu ziren eta igandeko txokoz jatean, herri, 270 lagun elkartu ziren», gaineratu dute. Mozorroen hamargarren Leizea saria *Urdangarin gizaroo* konpartisarentzat izan zen, «pape-

rean gehien sartu zirelako». Bakkoirik politena, herri, Lurdes Lasak eskuratu zuen. «Oso giro polita izan zen sagardo dastaketa eta herriko talogileen unean», gaineratu dute. Igandean, hamalaketakoa, dantza saioa, bazkaria herriko pilotalekuan, txaranga, jokoak... izan zituzten. Buakaera *gitoa* errez eman zioten. Antolatzaileek bereziki esker-erak eman nahi dizkie txaranga-koi, udaliko eta haragi erretzaileek. **o lbarraidea@hitza.info**

Kaldereroen eguna



INAUTERIAK IRAGARTZEKO ESKUALDEA IJITOEZ BETE DA

Ostiralen iritsi ziren lehen ijitoak eskualdera. Inauteriak gainean ditugula iragarri. Zuzurkilen, Iruan edota Anoretan ibili ziren kaleak alaitzen. Musika eskolako bandak kontzertuak eskaini zuten. Tolosan, Larunbatean, Tolosak

hartu zuten lekukoa. Goizean erraldiak eta buruhandiak ibili ziren. Alz-Orratz elkarrekin antolatuta, haurren jaialdia izan zen Leidor aretoan: Maddi eta Behat Zubeldia eta Jare Goya izan ziren mozorroen saria jaso zu-

tenak. 19:00etan kaldereroen konpartisa Plaza Zaharrean elkartu zen; udaletxeko balkoitik pregola irakurti zuten, eta musika eta dantzarik ez zen faltatu. Ijitoez bete zen Tolosa. Gertu da Ostegun Gizona. >>>

Zuzurkil



JOXE ARREGI GOGOAN IZAN DUTE

Atzo izan zen Torturaren Aurkako Eguna. Ekitaldi nagusia Zuzurkilen egin zen igandean, Joxe Arregiren heiritzaeren urteurrean. Zuzurkidara 1981ean hil zen Carabanchego ospitalean, jasandako torturen ondorioz. Mendi martxa egin zuten lehenik, eta ondoren ekitaldi nagusia izan zen Joxe Arregi plazan. Atzo, Zuzurkilgo hilerrian lore eskaintza egin zuten, eta Vilabolako udaletxeko erabilera antzeko gaitan Garzonoren protokoloa. *Tortura Euskal Herrian* dokumentalaren emanaldia izan zen. Ibarrañel-karretaraztea egin zuten tortura salatatzeko. >>>

Tolosa



HIRUGARRENGOAN BANATU DUTE

Tolosako merkatarien elkartearen Gabonetako zozketako lehen saria banatu zuten larunbatean Arregi lore dendan. Hirugarren zenbakiak hau da, 81.620 zenbakiak jaso du saria. Lehen biak ez dira agertu, eta Iñigo Gurutxagak eskuratu du bidala egiteko 2.000 euroko baloi duen txartela. Oلابerriana joan da saria. Tolosako merkatarien elkarteak, Tolosara eskualdekoek gain kanpotik ere etortzen direla erostekak egitera aipamarratu nahi dute. Horren seinale da sari nagusia Goierria joan dela. >>>

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

LEHEN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA	
Titin III-Merino II	22
Mrtnez Irujo-Barriola	19
Bengoetxea VI-Apr aiz	22
Arretxe II-Begino	12

Sailkapena

1. Olaizola II-Beroiz	8-0
2. Irujo-Barriola	5-3
3. Titin III-Merino	5-3
4. Berasaluze VIII-Albisu	4-4
5. Bengoetxea VI-Apr aiz	4-4

Hurrengo partidak

Mrtnez Irujo-Barriola	
Xala-Laskurain	
Bengoetxea VI-Apr aiz	
Berasaluze VIII-Albisu	

BIGARREN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA

Jaunarena-Peñagarikano	22
Lemuno-Aretxabaleta	19

Hurrengo partidak

Lemuno-Aretxabaleta	
Olazabal-Larrinaga	
Jaunarena-Cecilio	
Tainta-Argote	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
21. jardunaldia	
Behobia-Tolosa CF	0-0

Sailkapena

1. Anaitasuna	44p
2. Berio	41p
3. Tolosa	39p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF - Roteta	
--------------------	--

ERREGIONAL PREFERENTEA

20. jardunaldia	
------------------------	--

Lehen taldea

Tolosa B - Santo Tomas	4-1
------------------------	-----

Sailkapena

1. Ostadar	46p
2. Touring	44p
3. Tolosa B	42p

Hurrengo jardunaldia

Sanpedrotarra-Tolosa B	
------------------------	--

Bigarren taldea

Ilintxas-Intxurre	7-1
-------------------	-----

Sailkapena

1. Lagun Onak	39p
2. Antzuola	36p
3. Getariako KETA	34p
16. Intxurre	12p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre-Eibartarrak	
----------------------	--

ARARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA	
16. jardunaldia	
Colo-colo-Laskorain	1-1

Sailkapena

1. Ebrosala	33p
2. Kirol Sport	30p
3. Pinseque	30p

12. Laskorain Ikastola

14p.	
Hurrengo jardunaldia	
Laskorain-Bajo Aragon	

HIRUGARREN MAILA

19. jardunaldia	
Santurtzi-Egintza	2-5
Ibarra-Buruntza	2-0

Sailkapena

1. Ibarra	48p.
2. Sestao	40p.
3. Aurrera Vitoria	39p.

8. Egintza Transportes

Lakuntza	25p
----------	-----

Hurrengo jardunaldia

Meatzari-Ibarra	
Egintza-Elorrioko Buskantza	

EUSKAL LIGA

19. jardunaldia	
Hirukide-Kukuiga	6-2
Lagun Onak-Eskolapioak	5-4
Isu Leihoak-Tolargi	2-5

Sailkapena

1. Tolargi	43p.
2. Goierri	42p.
3. Tolosala Hirukide	39p.
7. Eskolapioak	24p.

Hurrengo jardunaldia

Tolargi-Eskoriatza	
Eskolapioak-Hirukide	

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA	
Santurtzi-Bidebide	87-82

Sailkapena

1. Santurtzi	12-4
2. Seky.es	11-5
3. Bidebide	10-6

Hurrengo jardunaldia

Goierri-Bidebide	
------------------	--

SOKATIRA

Euskal Herriko Zortziko	
Goma Gaineko Txapelketa	

600 kilotan (gizonezkoak)

Finala	
1. Abadiño A	
2. Amaiur	
3. Ibarra	

500 kilotan 2. jardunaldia (emakumezkoak)

1. Badaiotz	4p
2. Sakana	3p
3. Ibarra	2p

Hurrengo jardunaldia

Otsailaren 18an, Arrigorriagan, 500 kilotako azken jardunaldia jokatu da, 17:00etan.	
--	--

AIZKORA

URREZKO AIZKOARA	
Finalerdiak	
Otaño-Otaegi	19:41
Lopez-Erasun	20:38

ZILARREZKO AIZKOARA

Leitza	
Saralegi-Olano	13:45
Lasa-Irazu	15:33



Partidako protagonistak antolatzaileekin batera, Belbietako ikuskizunaren amaieran. A. IMAZ

Mikel Goñi pilotariak frontoiak betetzen jarraitzen duela erakutsi du

Iñaki Errazkin tolosarrak eta Julen Urruzola asteasuarrak 21 tanto egin dizkiote Mikel Goñiri

Asier Imaz Ibarra

Alperrak koadrilako kideak eta Aitor Esnaola euskal presoaren lagunak oso gustura zeuden larunbatean, jai ederra antolatu baitzuten Ibarra pilotalekuan. Alde batetik, frontoia txiki gelditu zen, eta bestetik, kirol mailan, tanto ederrak ikusi ahal ziren, eta baita azken unera arteko emozioa eta Goñiren erakustaldia ere.

Aurkariak, Iñaki Errazkin eta Julen Urruzola, ez ziren motz gelditu. Maila bikaina erakutsi zuten, eta Goñi II.a benetan estu hartu zuten. Partida irabazteko aukera ere izan zuten, baina azkenean, profesionalak irabazi zuten: 22-21.

Belbieten pilotalekuan gertatu zena ikusi ondoren, antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie ikusleei, bertara joateagatik, eta pilotariei, emandako ikusizunagatik. Guztira, 500 lagun baino gehiago elkartu ziren frontoian, haur nahiz heldu, eta denek gozatu zuten.

Pilotariak ere «gustura» aritu eta gelditu ziren. Mikel Goñik, aurkarien maila azpimarratu

zuen, biren aurka jokatzeko beti zaila izaten dela gogoratuaz.

Errazkin eta Urruzola irribarre handi batekin sartu ziren aldagelara, nahiz eta partida galdu. Eurentzat «esperientzia oso polita» izan zela esan zuten, «profesional izandako baten aurka jokatzeko beti baita polita». Urruzola asteasuarraren esanetan, «kosta egin zaigu hasieran partidaren sartzea: urduritasuna, ezagunak... baina behin izardia botatzen hasi garenean, gustura ibili gara». Errazkin tolosarrak Oronozkoaren «indarra» azpimarratu zuten: «Mikel Goñiren ezaugarriaren bat esan beharko banu, hori indarra da. Pilota izugarriko abiaduran mugitzen du».

Mikel Goñi • Pilotaria

«Maite nautela ikusi dut, eta hori benetan eskertzekoa da»

A. Imaz Ibarra

Jendearekin argazkiak ateratzen egon ondoren, partidaz hitz egin zuen Mikel Goñik (Ornoz, 1977).

Zer moduzko bizipena izan da?

Giroa izugarrikoa izan da, frontoia beteta baitzegoen. Nahiz eta hotz handia egin jendea etorri egin da, eta horrek poz handia ematen du. Bertako bi pilotari egoteak ere, giro izugarria jartzen du. Nire aldetik, ez da erraza biren aurka jokatzeko. Beraiek oso ongi moldatu direla uste dut; hasieran ni nahasten saiatu dira, baina azkenean, zorte pixka batekin, partidari buelta emateko aukera izan du.

Partida oso lehiatua izan da.

Biren aurka jokatzeko dudanean,



A. IMAZ

tentsio handia sentitzen dut, eta horrek asko nekatzen nau. Bi biren aurka jokatu izan bagenu, agian, partida politagoa izango zen, baina erritmo handian jokatu dugu eta gustura. Errazkinen tanto politak egin ditu, eta baita

pilota zailak eraman ere. Urruzola, berriz, nabari da pilotan ibiltzen dela. Ez dute nolana hiko bikotea osatzen.

Eta ikusleak?

Bertako bi gazte egoteak giroa asko berotzen du, eta gero, herri honetan maite nautela ere ikusi dut, eta hori eskertzekoa da. Adin guztietako ikusleak etorri dira, haurretatik hasi eta aitona-amonetaraino. Denok uste dut, arratsalde polita pasatu dugula, eta jendea etxera gustura joan dela.

Zer moduzko frontoia da Ibarra?

Herriko jaietan partida politik antolatu daitezke. Pilotarekin amatuz gero, lehia politik ikus daitezke bertan. Frontoiak utzi egin du jokatzeko, eta baxua denez, aurrean joko polita sor daitezke.

Joseba Otaegi eta Unai Otaño Urrezko Aizkoraren finalean egongo dira

Zilarrezko Mailan Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanok ezustekoa eman dute Leitzako Amazabalen

Erredakzioa

Unai Otaño eta Josebak Otaegik Urrezko Aizkoraren finala jokatuko dute. Igandean, Arabako Valdegobian, finalerdietako kanporaketa jokatu zuten, eta eskualdeko bikoteak maila bikaina

erakutsi zuen, aurkarietia minutu bateko alde aterata. Ibartarrak eta zizurkildarrak, egin beharreko lan guztia 19 minutu eta 41 segundotan amaitu zuten. Lopezek eta Erasunek 20 minutu eta 38 segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko. Ondorioz, Otaño eta Otaegi txapelketaren finalean egongo dira. Aurkariak bigarren finalerdiko irabazleak izango dira: Arrospe-Mugertza II edo Azurmendi-Atutxa II.

Zilarrezko Mailan, kanporaketa Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatu zen larunbatean.

Alde batetik, etxeko bikotea ateratu pilotalekura, hau da, Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano. Bestetik, askorentzat faboritoak zirenak, Jexuxmari Lasa eta Jon Irarzu gipuzkoarrak. Leitzarrek, ordea, erakustaldia eman zuten; lanak 13:45 segundotan amaitu zituzten. Lasak eta Irarzu proba bakarra irabazi zuten, kolpeakoa. Orokorrean, ordea, 15 minutu eta 10 segundoko denbora markatu zuten.

Gazteen mailan, Saralegi II.ak eta Larreak III.ak irabazi zuten asteburuan.

Laskorainek berdinketa lortu du etxetik urrun

Hirugarren mailan, Ibarrek 2-0 menderatu du Buruntza, eta Egintzak Santurtziri 2-5 irabazi dio

Erredakzioa

Laskorain ikastolak berdinketa erdietsi zuen Kaldereroen Egunean, azken lau jardinalditan hirugarrena. Aragoiko hiriburuan jokatuz zuten horitxoek, hotza lagun, Confort Coloren kantxan. Banako berdinketa gazi-gozaoren itzuli ziren tolosarrak, zartagiak astintzeko beta nahikoarekin.

Sailkapeneko estuasunek eraginda, horitxoak erreazioaren ahaleginetan dabilta aspaldi honetan, eta garaipenik ez eskuratu arren, azken asteotan ahalegina ez da antzua izan. Egia da berdinketaren puntua opari txiroa dela, garaipenaren hiruekin alderatuta, baina taldeak hiru puntu pilatu ditu azken lau neurketetan, eta berriro lehiakor ageri da, defentsa lana serioari esker batik bat.

Egia esan, larunbatean Zaragozan, bi taldeak kantxaratu ziren erreazioaren bila, etxekoek ere

hiru puntuak behar baitzituzten, eta neurketa trabatu bezain orekatua ikusi genuen. Honelakoetan, sarri gertatzen den moduan, defentsak nagusitu ziren eraso jokoaren aurrean, eta gol aukerak oso garesti banatu ziren.

Markagailuan aragoitarrak aurrreratu ziren lehen zatian. Laskoraindarrek burua hotz mantendu zuten, eta lanean serio aritu ziren. Minutu asko izan ziren markagailuan azpitik, baina amaierarako bost minutu falta zirela, Jonikok behin betiko banakoa sartu zuen. Beraz, puntu batekin eta ikasgai garrantzitsuekin itzuli ziren Tolosara Javi delegatua, Javi BCE, Aitor UE eta Jorge FMI prestatzaile *troika* salbatzailea, eta Endika, Telleria, Gil, Murgi, Otxoa, Zubillaga, Txiki, Diez, Etxeberría, Alonso eta Aratz jokalariek.

Ibarra eta Egintza garaile

Hirugarren Mailan jokatzen duen Ibarrek lidertzari eutsi zion etxean, Buruntzari 2-0 irabazi ostean. Villabonako Egintzak ere garaipen garrantzitsua lortu zuen Santurtzín, bertako taldearen aurka, 2-5eko emaitzarekin. Sailkapen nagusian zortzigarren aurkitzen dira.

Irudia ▾ Pilota



AROZENA ETA MENDIZABAL, NAGUSI

Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria 2012 jokatzen ari dira Maider Mendizabal eta Nagore Arozena. Txapelketako bigarren jardunaldiak, biek ala biek, garaipenak lortu zituzten. Lizartzarrak, Arozenak, Irazustabarrenarekin osatzen du bikotea, eta Muneta-Bordagarayri 30-29 irabazi zieten. Anoetarrak, Mendizabalek, Arrieta-rekin osatzen du bikotea. Hauen aurkariak Arrieta-Ruiz de Larramendi izan ziren, eta 30-20ko emaitzarekin etsi behar izan zuten. HITZA

zuten du bikotea, eta Muneta-Bordagarayri 30-29 irabazi zieten. Anoetarrak, Mendizabalek, Arrieta-rekin osatzen du bikotea. Hauen aurkariak Arrieta-Ruiz de Larramendi izan ziren, eta 30-20ko emaitzarekin etsi behar izan zuten. HITZA



Ibarrek larunbatean jokatu zuen zaleen aurrean. A. IMAZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura egingo dute gaur, 19:00etan. Bertan hainbat puntu izango dituzte hizpide, tartean, aurrekontuen onarpena eta PSE-EEK zein Bilduk aurkeztutako mozio ugari.
- **Berrobi.** Festa batzordeak bilera egingo du gaur, 19:30ean, udaletxean. San Agustin festak antolatzen hasteko lehen bilera da gaurkoa, eta batzordeak herritar guztiak gonbidatzen ditu bertan parte hartzera.
- **Anoeta.** Lilatsoian Anoeta talde bezala ateratzeko asmoa dutenek bilera dute gaur, 18:00etan, udaletxean.

Irudia Anoeta



HOTZA ASTINTZEKO, SOKA DANTZAN

Egun benetan hotzak izan dira asteburuan. Larunbatean eguzkia aterata bazen ere, ez zuen gehiegi berotu, eta Anoetako Dantza Soka Eguna hotz hasi zuten. Goizean goiz baserri baserri joan ziren, eta eguerdian elkartu ziren berriz ere, plazan, soka dantza egiteko. Iaz

mutilen txanda izan zen, eta aurten neskek izan dira protagonistak. Herritar ugari bildu ziren plazan dantza saioa ikusteko, eta ondoren, babarrun jatea ere egin zuten Kuku elkartearen. Eguna Itzel taldearen erromeriarekin amaitu zuten. E.MAIZ

Bizi inauteriak hitza info rekin!

Sartu tolosa.hitza.info webgunean eta Inauterien atalean informazio guztia izango duzu: egitaraua, albisteak, elkarrizketak, bideoak, bitxikeriak, garraio publikoaren inguruko informazioa

Argazki Lehiaketako argazkiak ere bertan aurkituko dituzu. Irukiak bidaltzeko azken eguna martxoaren 9a izango da, eta saridunak Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen Astobieta **nekazalturismoan bi pertsonentzako** gau bateko egonaldia irabaziko du.

Eta gogoratu Ostegun Gizeneko txupinazoa zuzenean jarraitu dezakezula, tolosa.hitza.info webgunean.

Elketa Jatetxea

Inauterietako menu berezia

- Etxeko foie terrina fruitu gorriekin
- Iberiar urdaiazpikoa
- Txanguro, aguakatea eta olagarroz eginiko entsalada epela
- Onddo risottoa
- Garaiko barazkiak urdaiazpikoarekin
- Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko krepa, marisko salsarekin
- Legatza melatua
- Txiabiak pelayo erara
- Txekor masailak gisatuak
- Txuleta zatiak pikiloekin
- Etxeko tartak
- Brownie-a krema ingelesarekin
- Mandarinazko cava sorbeta
- Kafea, etxeko kulantza, sagardoa eta ura bane

Prezioa: **30€** (bez-a barne)

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

Enkarguz:

- Taldekako babarrun jatea
- Txerrikumea • Arkumea

ERRESERBA EGITEKO:
San Miguel bailara, 2 • Hernalde • 943 65 21 16
elketajatetxea@hotmail.com